



Igandean, urriaren 10ean, ospatu zen Zaharren omenaldi eguna. Hainbat ekitaldi burutu ziren eta jendetsuena Michelin kirol guneko frontoiko bazkaria izan zen, 870 herritar bildu ziren bertan.

Adinduen omenez

Lehenago astean, pertsona adinduak omentzeko hainbat ekimen burutu ziren Lasarte-Orian

Pertsona adinduak protagonista izan ziren lehenago asteburuan gure herrian egin ziren hainbat ekitaldietan.

Ostiralean, Urrezko ezteiak ospatu zituzten bikoteei oroigarriak banatu zitzaizkien; larunbatean, Ama

Guadalupeko Extremadura etxeak haur eta gaztetxoan olerki eta marrazki lehiaketako saribanaketa burutu zen eta igandean Zaharren omenaldi eguna ospatu zen.

Informazio gehiago, 4 eta 5. orrialdeetan. •

Haur eta gaztetxoek badute non gozatu: Ludoteka eta Gazte Kluba

Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoak zorteko dira, lagun berriak egiteko eta ondo pasatzeko lekua baitute. Txikienek Amaraun ludoteka dute astelehenetik ostegunera eta gazteenek, gaurtik aurrera, ostiralean Gazte kluba izan-go dute.

Ludoteka

Amaraun ludotekak hasi du ikasturtea, eta ondo hasteko txotxongilo saioa antolatu zuten ostegunean, urriaren 7an. 30 lagun inguru bildu ziren txotxongiloez gozatze-ko. Txotxongilo saioaren

ondoren, sorpresa ugari izan zituzten, musika, dantza eta abestiak.

Ikasturtean zehar ekintza ugari antolatuko dituztela ere iragarri zuten begiraleek.

Gazte kluba

Honetaz gain, 9 eta 12 urte arteko gaztetxoek Gazte kluba ezagutzeko aukera dute gaur. Gainera, ezkontza bateko dantzaldira gonbidatuak daude hurbiltzen diren guztiak.

Hasiera berezi honen ostean, ostiralero tailerrak, jolasak eta eskulanak egingo dituzte Klubeko gaztetxoek. •



Txotxongilo saio ederra eskaini zieten begiraleek Ludotekako haurrei.

AURREKONTUAK/3

PSE-EE eta Ezker Abertzaleko alderdien salaketak

GIZARTEA/3

Autoeskola berezia egongo da bihar Urbil merkatalgunean

KIROLA/6

Ostadarrek irabazi zuen I. erregionalen derbia

SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



**Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net**

Neure kabuz



Politika eta ekonomia

Etxebizitzaren arazoa larria eta iskanbilatsua da, jendeak emozio askorekin bizi duena. Horren adibide garbia da duela egun batzuk Gogiegiko ibarrean eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxeen zozketa. "Irabazle" batzuk ezagunak ditut eta pozten naiz eurengeatik (baita besteengatik ere).

Hori esanda, ez zait bidezkoa iruditzen Administrazioak zozketa erabiltzea baliabide urriak esleiteko orduan. Ez da justua. Loteria ez da justua. Administrazioak herritar guztiei aukera berdina eman behar dizkie eta zozketak ez du hori bermatzen. Zer irudituko litzazuke zozketa batean niri zergak ez ordaintzea egokituko balitzait eta zuri ez?

Horrek beste zerbaitea garamatza. Zer egin dezake Administrazioak? Adituek hainbat neurri proposatu dituzte arazo zail horri aurre egiteko: etxebizitzaren alokairua sustatzea (alokatzearen tratamendua hobetuz), zozketarik ez erabiltzea babes ofizialeko etxebizitzak "saltzerakoan" eta epe jakin baterako alokatzea bideratzea baliabideak, etxebizitza erostearen zerga-tratamendu mesedegarria ezabatzea, etxebizitzaren prezioak behera egin dezakeela jakin araztea, sistema finantzieroaren portaera hobeto gainbegiratzea (maileguen baldintzak, tasazioak, ...), eta lur gehiago "askatzea" (baina azken hau ez dago hain argi).

Beno, besterik ez ... Ah, bai!!! 2010eko Ekonomiako hiru Nobel saridunak politika eta ekonomia lotuta dauden beste atal bat landu dute, lan merkatuarena. Baina hori beste baterako utziko dut. Agur.

Iñaki Erauskin

Zorion-agurrak



Olaia

Zorionak poxpolin eta bost muxu erraldoi partetik.



Kenai

Zorionak zure familieren partez. 4 muxu



Afrika

Zorionak eta bederratziz muxu gurasoak eta Yosuren partetik



Txema

Zorionak eta merienda zure kontu. Kristina, Joana, Enara eta Maite-ren partetik.



Intza

Sei muxu pottolo pottoloak gure neska handiarentzat etxeokoen partetik. Ongi izan.



Ander

Zorionak zure 2. urtebetetzean. Osaba Julian, izeba Manoli eta Ainara lehengusuaren partetik.



Andrea, Fermin eta Marikarmen

Zorionak eta muxu pila bat hirurontzat familiaren partetik.



Fortunato eta Pakita

Zorionak aitona eta amona zuen urrezko ezteietan. Muxu handi bat familia guztia- ren partetik.

Hiribusaren ordutegia Lanegunetan

www.tsst.info 943.361.741
Lasarte-Oria

Antxistu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antxistu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Logela alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean, 275 euro. Interesa dutenek deitu dezatela 664 427 082 telefonora 18:00etatik aurrera.

• Etxea errenta eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako telefono zenbakia: 628 904 130.

• Garage irekia alokatzen dut Green plazan. Harremanetarako zenbakia: 943 492 558.

• Garage handia, bi marra, alokatzen dut Atsobakar auzoan. Harremanetarako zenbakia: 943 376 115.

Salerosketak

• Egoera onean dagoen antzinako josteko makina erosiko nuke. Harremanetarako: 943 365 149.

Lan-eskaintzak

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, astean zehar arratsalde batean eta larunbata eta igande gauearako. Harremanetarako: 610 953 258, Pili; 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

• Ingelesko irakaslea behar da, bertakoa, 17 urteko gazte bati eskola partikularrik emateko. Harremanetarako: 615 793 964.

Lan-eskariak

• Gai desberdinetako, euskara, lenguaia, matematika, ingelesa..., klaseak emango nituzte. Harremanetarako zenbakia, 943 362 532 edo 693 601 222.

• Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta personalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako: 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 15

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Larunbata, 16

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 17

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 18

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 19

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371 151

Asteazkena, 20

Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361 774

Osteguna, 21

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361 529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551 793

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Hilaren 7an ospatutako plenoan ez ziren aurrekontuan onartu. Oposizioako alderdi guztiak kontrari bozkatu zuten.

‘EAJk emandako hitza hautsi du’

- PSE-EEk aurrekontuen batzarrean gertatutakoa baloratu du
- Ezker Abertzaleak aldiz, Zaballoren arduragabekeria salatatu du

Lasarte-Oriako udaleko aurrekontuen inguruan hartutako konpromisoa hautsi izana egotzi die Gipuzkoako PSE-EEk, EAJ eta Hamaikabat alderdiei. Susana Corcuera, Udala-politikako idazkariak salatu suenez “EAJk emandako hitza ez betetzea, Lasarte-Orian krisi ekonomiko-irretetako trabak sortzea da”.

Akordioaren haustura

Gogoratu behar da, 2009ko urrian, PSE-EE, EAJ eta Hamaikabatek “egonkortasun instituzionala egoteko, krisi ekonomikoaren aurkako eta Euskadiko ongizatearen sostengarritasunerako akordioa sinatu guneela”, dio Corcuera.

Akordioan ezartzen da PSE-EEk Euskal Gobernuan, EAJ eta Hamaikabat-ek Foru Aldundietan, eta hiru alderdi hauek alkatetza duten udalteeetan, oposizioarekin akordioak lortzeko bideak irekitzeko konpromisoa hartzen dutela. Era honetara, Parlamentu edota Udaletan, 2010eko aurrekontu orokorreko proiektuetan, elkarrekin apustu baten alde egin beharko lukete taldeek eta beraz aldeko bozka eman edota abstenitu.

Plenoa

Hilaren 7ko plenoan ez zen 2010eko 33 milioi eurotako aurrekontu proiektua onartu. Honen harira “hainbat hirigintza obra eta ekipamenduen hobekuntzek aurrekontu berriaren aurkezpena itxaron beharko dute, 2011 urterako geratuz” dio Corcuera.

Egoera ekonomiko berezia da orain bizitzen ari garena eta horren harira “udalteeke moldatu egin behar dira eta udal-aurrekontu bat oztopen udalerria izaten da kal-

tetua,” Corcuera hitzetan. Zerbitzuetan, gastu sozialean eta inbertsioetan eragina edukiko du erabakiak “2010 egoera ekonomikoa ez da 2009 urtekoaren antzekoa, nahiz eta 2009ko egoera ekonomikoa oso txarra izan zen”.

Susana Corcuera ustez EAJ eta Hamaikabaten jarrera “elkartasun eza baino ez da, ez dute egoeran lagundu nahi”. Gainera, EAJ eta Hamaikabat euren interes partikularretara mugatzen direla leporatzen die, “interes orokorrez ahaztuz”.

Era berean, “denak balio du” estrategia erabiltzea egotzen die alderdi sozialistak bi alderdiei. Bizi dugun egoera ekonomiko honi aurre egin ahal izateko “estatu honetan maila egokia duten alderdi eta politikako behar dira, eta EAJk eta Hamaikabaten jarrera arduragabekeriarena izan da”.

Honen aurrean, Corcuera adierazi duenez sozialistek ozen esan nahi dute “Lasarte-Oria aurrera aterako dugula, laguntzarik ez badugu ere”.

Ezker Abertzalearen kritika

Era berean, herriko Ezker Abertzaleko zinegotziek azkenengo udalbatzarrean gertatutakoa salatatu dute “urteko aurrekontua gai serio eta oso garrantzitsua da, ez da merke edo salerosketa gai bat” adieraziz. Euren ustez ezin da gai hau akordioak gabe plenoan aurkeztu “askotan entzun dugu horretarako batzordeak direla eztabaida gune onenak”.

Gainera, batzorra hasi aurretik alderdi sozialistak azken orduko proposamen bat mahai gainean jarri zuela azaldu dute. “Zergatik? akordioak ez zutelako eta gutxiengoan zeudelako? Zer-

tarako eskatu zenuten ordu laurdeneko etenaldia? Norekin bildu zineten? Alderdi Popularrarekin? Zertarako zeren truke?” Hauek dira erantzunik gabe dauden galderetako batzuk haien ustez.

Bestetik, alderdi popularraren jarrera eta EAJk egindako joko bikoitza bidegabekieriaz jotzen dute. “Encinasen jarrera pertsonal eta partidista da, ezin zarete bere joko zikin eta interesatun erori” gomendatzen diote alderdi sozialistari. Bestetik, “EAJko bozeramaileak eman zuen irudi lotsagarria salatatu nahi dugu, truke-salerosketa batean ginela ematen zuten” gaineratu dute.

Alderdi sozialistak udalaren kontu sei liberatu izatea “gehiegizko pribilegioa iruditzen zaigu” adierazten dute. Izan ere, “teknikariak egin beharreko lanetan gehiegizko konfiantza kargu daudela uste dugu”. Honen harira “gastu korrontea jaitsi behar da, eta kargu hauek hasi gaitzek”.

Bestetik, hondakin bilketan “apustu garestiena, ez jasangarriena egiten duzue, zertan datza 2007ko udal batzarrek hartutako erabakia?” salatzen dute.

Honetaz gain, aurrekontu parte hartzaile batzuk nahi dituztela adierazten dute, “herriko sektore desberdinekin, hitz egin eta adostutakoak”.

Eta egoerari buelta emateko momentua dela azaltzen dute: “etxe barutik hasi behar zara Zaballok” eta azken urteetan kudeaketa negargarri, ilun eta arraokaren arduradunari kontuak eskatzea gomendatzen diote. “Legealdiko lehen egunean lanera gentoze la esan genizun, lanean gara eta nahi duzunean badakizu non gauden” amaitzen dute. •

GIZARTEA

Nikaraguako enbaxada Donostian

Nikaraguako enbaxadak jakin arazten du, asteburu honetan Donostian bulego bat irekiko duela eremuan bizi diren nikaraguarrek hainbat izapide egin ditzaten, hala nola, dokumentuak legezatu, pasaporte berria eskatu, pasaportea berritu, konstantzia, jaiotze eta ezkontzen inskripzioa edo notario-ekriturak. Era honetara, ez dute Madrilera joan beharrik.

Esperanza Latina elkarteak Antiguoko Aizgorri kaleko 20. zenbakian duen bulegoan egingo dira tramiteak, larunbatean 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara eta igandean, berriz, 9:00etatik 13:30era.

Ordua eskatzeko edo informazio gehiago eskuratzeko, deitu 915 555 513 edo 943 212 370 telefono zenbakietara. •

ELIZKIZUNA

Larunbateko meza ez da grabatuko

Aurreko bi asteetan, ETBk San Pedro parrokiako larunbateko meza grabatu du igandeko ETB1eko *Meza Santua* programan eskaintzeko. Aste honetan ere elizkizuna grabatzekoak ziren, baina igandean Vatikanoan Andoaingo Ama Kandidaren kanonizazio egingo da eta ETB kateak hori zuzenean ematea erabaki du. Hori dela eta, ez da larunbatean mezarik grabatuko.

XUMELA KANTUZALEAK

Ahotsak berotzen

Xumela kantuzaleen taldeak astelehenean, urriaren 18an hurrengo entsegu duela gogora arazi nahi du. Hemendik aurrera, Josu Txapartegi Txapasek zuzentzen duen taldea astelehenero bilduko da, 19:30etik aurrera Landaberri BHN.

Kantuzaleen talde honen arduradunek herritarrek animatu nahi dituzte bertan parte hartzera, “nahiz eta musikariek ez jakin, kantatzea gustuko baduzu zatok gurekin. Astelehenero biltzen gara eztaerri berotzera eta ongi pasatzera.” •

Haurrentzako autoeskola berezia larunbatean Urbilen

Kontzientziatu zaituzte! Urritasunarekin ere gai zara kanpainaren autoeskola berezia bihar iritsiko da, berriro ere, Urbil Merkatal Guneko aparkalekura.

6 eta 12 urte arteko urritasuna eta urritasunik ez duten haurrei zuzendua dago eta helburua urritasuna duten pertsonen bide-hezuntza arloan duten gaitasuna erakustea da.

Michelin Lasarte eta Adecco fundazioak sustatutako egitasmo honek pertsonaia ezagun ezberdinen babesa du, esate baterako, Richard Oribe igerilaria, Josune Bereziartua eskalatazaileria edo Xabier Euskitze bertsolaria. Eta gainera bihar egingo dira bertan.

Era honetara, gela didaktiko batean bide-hezuntzari buruzko oinarriko ezagutza eskainiko zaie haurrei eta ostein, zirkuituan haurrek ikasitako praktikan jarriko dute.

Honetaz gain, sentsibilizazioa ere landuko da. Honela, bikoteka hirian barrena buelta bat eman beharko dute eta haurretako batek urritasuna izango balu bezala jokatu beharko du. Beste batzuk, berriz, gurgildun aukian zirkuito berezia egingo dute.

Autoeskola berezi honetaz gozatzeko, hurbil zaitzete Urbilera, goizean 11:00etatik 13:00etara edo arratsaldean 16:00etatik 19:00etara. •



lax kanpainak izan zuen arrakasta ikusirik, berriro ere, Urbilera dator autoeskola berezia.



Egnari hasiera emateko, San Pedro parrokiaren mezan ospatu zen. Honean, hainbat pertsona sifidndi eta uddi ordaintzeko egon ziren. Irteeran, Ostarre taldeko gazteek klabellinak, txapeltakozkoak, txapeltakozkoak, txapeltakozkoak...



Haur eta gazteok ere bere harrizkoak jarri zuten omenaldi honetan. Argazkian, olerki eta marrazki lehiaketako sariak.



M^{re} Luisa Corpearen zuzendaritapan, abuztu egunak, hala nola, Pire Vigi, Donostarra, Chelillos soba, Alumberra eskolaini zuten Biyk. Bat erretiratuaren abesbatzak, baita erretiratuaren elkarteko erretiratuak ere.

Adinduak omentzeko eguna

ligandean, urriaren 10ean, pertsona adinduen egun handia izan zen Lasarte-Orian.

Ohikoa den bezala, bazkaria egin zen. Bertan, 870 herritar batu ziren eta Maximiliano Castro, 1914. urtean jaioa, eta 1918an jaioa, Josefa Ignacia Otaegui omentdu zituen Udalak, bazkariko pertsona adinduenak izateagatik.

Hauetaz gain, oroitza garrantzi jaso zuten aur-

ten 80 urte bete dituzten esko beteko dituzten 23 herritarrek ere.

Ospakitzunak

Baina hau ez zen egun honetako ospakitzun bakarra izan.

Lehenik, San Pedro parrokiaren meza ospatu zen. Alboka Abesbatzak, Patsi Etxeberria bertso-lari eta Amalur eskolako trikitixa taldea eta dantzari taldeak aukera egon zuten, baita hainbat txiste

irteeran, Ostarre tal-

deko gazteek klabellinak bantatu zituzten.

Ostean, Amaluruko-ek kalejira alaietan Manuel Lekuona kultur etxerako bridea egin zuten, kalean zeuden herritar guztiak jaialdira gonbidatu.

Izan ere, bertan Lasarte-Oriako Biyak-Bat erretiratuaren elkarteko abesbatzak eskaintzako kontzertua emaitzeko aukera egon zen, baita hainbat txiste



Ospakitzun amateko, ohikoa den bezala, bazkaria antolatu zen eta bago bazkaldia zuten Micheln, keol gureko pilotalekuan bildu ziren 870 herritarrek.



Haur eta gazteok ere bere harrizkoak jarri zuten omenaldi honetan. Argazkian, olerki eta marrazki lehiaketako sariak.

Zaharren omenaldiko txapelketako eukarazko olerki irabazleak

7 eta 9 urte arteko maila
Elena Arruti

Lorea gara umeak landareak gurusoak zuhaitzak gurusoan gurusoak eta denon artean Askok gustatzen zaio osatzen ditugu joaten gara gu basoak parkera elkarrekin.

10 eta 12 urte arteko maila
Elena Peña

Nire atonak asko jolasten du nirekin eta oso pozik nago berarekin. Askok gustatzen zaio egotea gurekin eta joaten gara gu parkera elkarrekin.

Aiton-amonen omenez

Larunbatean, urriaren 9an, Biyak Bat erretiratuaren egutza haur eta gazteokomailan eta gazteokomailan eta gazteokomailan, 10 eta 12 urtekoetan, Elena Peña izan dira, gazteokomailan eta gazteokomailan. Zaharren omenaldien inguruan antolatzen duen, haureratzako olerki eta marrazki lehiaketako sariak banatu baitzuten.

Lasarte-Oriako haurrek geruko dituzten pertsona adinduen, haren aitonen amonei zuzendutako olerki eta marrazkiak egin dituzte eta epaimahainen-tzat irabazleak aukeratu zail izan zen zehazteko den mailagatik.

Aurtengo, irabazleak



Urrezko ezizen eskaldaren ostean, bikoteek alde argakia egin zuten udaliko eta elkarreko ordaintzekin batera.

50 urte elkarrekin.

Aurten urrezko ezteak dituzten herriko 11 bikoteei oroitza bantatu zituzten lehengo ostiralean, urriak 8an, Biyak Bat elkartek, Lasarte-Oriako Udalerriaren, Caja Rural de Navarra, Caixa eta Kutxaren laguntzaz, landare bat, plaka bat, pastak, etab, hartu zituzten bikoteek eskaldan. Beste bi bikoteek ere baita opariak jaso behar zituzten baita ezin izan ziren eskaldara joan.

Bikote omentuak: Juan Antonio Valdivia eta Carmen Barranco; Angel Clemente eta Nati Moran; Jose Luis Mendiluce eta M^{re} Luisa Aristondo; Ramon Marin eta Encarnita Cordeba; Jose Ramon Iturza eta M^{re} Xabier Sarasola; Jose Ramon Lizaso eta Tere Aldalur; Fortu Sarzo eta Paquita Zurriarrain; Inaxio Balerdi eta Pego Iribarren; Jose Luis Irujo eta Lourdes Ormaiztegui; Esteleban Vicente eta Marina Sanchez; Ignacio Molina eta Magdalena Iñigo; Jose Jauregi eta Mikel Bengoetxea eta Aurelio eta Encarna Nieto izan ziren.

MATE

ESTIRIKAKO ARETOA






Foto deplazazio aragi, pulsatuarekin

- Era gutxietako deplazazioak
- Aurreragotako tratamenduak
- Beste hainbat zerbitzu
- Gorpuzteko tratamenduak

Uistuin Kalera 3/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 16

9:45ean, Ostadar - Kostkas M.B. (Infantil Txikiak) Michelinein.
 11:15ean, Ostadar - Beasain (I. Kadetea) Michelinein.
 12:45ean, Ostadar - Billabona (Kadeteen Ohorezko Maila) Michelinein.
 14:15ean, Ostadar - Internacional (Partehartze infantilak) Michelinein.
 15:45ean, Ostadar - Astigarragako Mundarro (Erregional Goren) Michelinein.
 17:00etan, Texas Lasartearra - Añorga (I. Erregionala) Michelinein.

9:30ean, Euskalduna - Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila) Ubitarte, Andoain.
 10:00etan, Zumaiako - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II) Aita Mari, Zumaian.
 11:30ean, Usurbil - Ostadar (I. Erregionala) Harane, Usurbil.
 18:30ean, Beasain - Ostadar (Emakumezkoen Liga) Igartza, Beasain.

Igandea 17

10:00etan, Tolosa - Ostadar (Alebinak) Michelinein.

9:00etan, Astigarragako Mundarro - Ostadar (I. Jubenila) Martutene, Donostian.
 17:30ean, Antiguoko - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Berio, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 15

HERRIKO TXAPELKETA
 Kirol guneko kantxan
 20:30ean, Naiban - Indaux

Larunbata 16

16:00etan, Aldaz H.K. - Concepto Createch (Nazional B maila) Kiroldegian.
 18:00etan, ISU Leihoak - Tolargi (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantxan
 09:15ean, ISU Leihoak - Ainhoa
 10:15ean, Epel - Buenetxea
 11:15ean, Oriá kris. - Katakra
 12:15ean, Obelix - Lekuona Mena
 13:15ean, Viña del Mar - Ayete

15:00etan, Kalaberri Z - Izarra
 16:00etan, IOB H.K. - Semblante Andaluz

Igandea 17

HERRIKO TXAPELKETA
 Kirol guneko kantxan
 10:00etan, Illun - Ilargi
 11:00etan, Morrison's - Izkiña Michelinein.

PILOTA

Ostirala 15

19:15ean, Bergara - Intza (Eskuz binaka II. Kadetea) Bergaran.

Larunbata 16

16:00etan, Intza - Urnieta 7 (Gipuzkoako txapelketa, eskuz bana-ka alebina) Michelinein.
 16:00etan, Intza - Euskal Giroa (Eskuz binaka III. Kadetea) Michelinein.
 16:00etan, Intza - Intxurre (Eskuz binaka I. Kadetea) Michelinein.
 16:00etan, Intza - Bergara (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinein.

10:00etan, Aurrera Saiaz 2 - Intza (Eskuz binaka I. Seniorra) Beotibar, Tolosan.

14:15ean, Hernani I - Intza 2 (Gipuzkoako txapelketa, eskuz bana-ka infantila) Hernanin.

Igandea 17

9:30ean, Añorga - Intza I (Gipuzkoako txapelketa, eskuz bana-ka infantila) Añorga, Donostian.

JUDO

Igandea 17

Egun osoa, LOKEko Asier Zubizarreta, Fermin Balda eta Oscar Garridok Sauvignoneko infantilen torneon parte hartuko dute, Frantzan.

ATLETISMOA

Igandea 17

10:00etan, hainbat herritarrek Donostiako klasikoa 15 km. proban parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 17

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak San Martzialera, Irunera egin-
 go du irteera.



Ostadar eta Texas Lasartearren arteko denboraldiko lehenengo derbia fisikoki gogorra izan zen jokalariek guztientzat.

Ostadarrek irabazi zuen Erregionalen derbia

Igor Bere eta Iñigo Zelarainen mutilek 4 eta 2 irabazi zioten Koldo Ageitosen taldeari

Berriro ere, I. erregionalako derbia ikusi zuten lehenengo larunbatean, urriaren 9an, Michelin kirol guneko futbol zelaian bertara hurbildu ziren zaletuek.

Denboraldi honetan Ostadar eta Texas Lasartearra herriko taldeen arteko lehen norgehiagoka zen hau eta Ostadarrek eraman zituen hiru puntuak.

Fisikoki partida gogorra izan zen jokalariek guztientzat. Izan ere, falta ugari egin ziren. Baina futbol ere ikusi zen zelaian. Batez ere, Igor Bere eta Iñigo Zelarainek zuzentzen duten Ostadarren taldearen eskutik.

Ostadar gogotsu

Igor Bere eta Iñigo Zelarai-

nek zuzentzen duten taldea indarrez atera zen. Hasieratik serio jokatu zuen, baloia ongi mugitu eta gol aukera dezente izan zituen.

Texas Lasartearra taldeak baja ugariarekin egin zion aurre partidari. Honela, Koldo Ageitosen mutilak ez ziren partidara egokitu lehenengo zatiko hasieran, ez zuten jokoaren ikuspeirik eta pase luzeak eginez arerioaren atera iristen saiatzen ziren.

Era honetara, Ostadar taldeak partida aurreratzea lortu zuen, Unai Ituarteren gol batekin.

Bi taldeek golaren bila joan ziren orduan eta Texasen alde egin zuen zorteak, Javi Torresen jaurtiketa Ostadarreko sarean sartu baitzen.

Berriro ere lehia sortu zen markagailuan zein talde gailenduko eta atsedendia iritsi zen banako berdinketarekin.

Ezin emaitza mantendu

Bigarren zatian, Koldo Ageitosen mutilak izan ziren markagailuan aurretik jarri zirenak, Fernandezek gol bati esker.

Tamalez, Ostadarreko mutilek aurre egin zioten egoerari eta partida bere alde jarri zuten hiru gol eginez.

Ander Rekondo, Ander Petxarroman eta Unai Ituarteren partidako bigarren gola ikusi ziren.

Ostadarrek ez zuen amore eman eta gol errenta handiagoa izan zitekeen, Txepo Texaseko atezainak gol aukerak geratu ez balitu. •

Pili Bodegas bigarren izan zen 3 Hondartzetan

Lehenengo igandean, urriaren 10ean, Donostian 3 Hondartzetako XXI. Amstel krossa egin zen.

Herritar ugari parte hartu zuten 10 kilometrotako proba honetan, baina nabarmentzekoak dira bi lasarteoriatarren, Pili Bodegas eta Jose Luis Delgadoren postuak.

Pili Bodegasek emakumezko beteranoen bigarren postuan lortu zuen, 38 minutu eta 26 segunduko lasterketa egin ondoren.

Jose Luis Delgadok, berriz, hamahirugarren postua lortu zuen seniorretan, 34:50 denborarekin. •



Berriro ere, aurrean ibili da Pili Bodegas 3 Hondartzetako XXI. Amstel krossen.

Kiroletako oharrak

Kiroldegiko neguko ordutegia

Herriko kirol guneak neguko ordutegia duela gogora arazten da. Kiroldegia, astelehenean ostiralera, 7:00etatik 22:30era egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandean, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igandean 9:00etatik 13:00etara eta Michelingo kirol gunea, astelehenean ostiralera, 15:00etatik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandean 9:00etatik 13:00etara.

Egunero

Erakusketa

HEGOALDERA BEGIRA, Irati Ber-gararen argazki erakusketa urria osoan. Irati *Aprendeh Euskadiko* kidea da. Jalgin, egun osoan zehar.

Igandea, 17

Zinea

SHREK, FELICES PARA SIEMPRE hau-rrantzako filma eskainiko da. Sarrera, 3,15 euro. Kulture-txean, 17:00etan, GAZTELANIAZ

Asteazkena, 20

Hitzaldia

FIBROMIALGIAREN Gipuzkoako Elkartearen hitzaldia. Kulture-txean, 18:00etan.

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Koruko Zuru-tzarekin 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Haurren liburute-gian, 18:00etan, EUSKARAZ

Ostirala, 22

Kontzertua

WHA WHA BUGA BAND taldean-er emanaldia Xpression eta Udalaren hitzarmenaren bai-tan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Hardcorea Jalgin gaur

MANTISA taldeak kontzertua eskainiko du gaur Jalgin. Mantisa taldea Zarautzen sortu zen, 2004an. Euskal Herriko hardcore eszenatik abiatu bazen ere, losu Gonzalez (ahotsa eta gitarra), Ganix Illaramendi (gitarra eta ahotsa), Iñigo Azkue (Baxua) eta Iñaki Castrok (bateria) osatzen duten taldeak egun rock estiloaren baitako ate guztiak irekita izan nahi ditu.

GAUR, HILAREN 15EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
23:00ETAN

Larunbata, 23

Antzerkia

TXIRULARI MAIJKOA haurrentza-ko antzerkia eskainiko du Tea-tro Paraiso antzerki taldeak. Sarrera, 3,15 euro. Kulture-txean, 18:00etan, EUSKARAZ

Igandea, 24

Zinea

MARMADUKE haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ

Astelehena, 25

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Pello Añor-garen eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasita, ezingo da gela-tik atera. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburute-gian, 18:00etatik aurrera. EUSKARAZ.

Asteazkena, 27

Kontzertua

LIEPAITES neskez osaturiko haur abesbatzaren emanaldia. Sarrera doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Osteguna, 28

Zinea

PRECIOUS filma ikusgai Oken-do Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ.

Ostirala, 29

Antzerkia

MORTIMER antzezlanaz izango da ikusgai. Klown formatuko lan batekin dator oraingoan Kukubiltxo antzerki taldea. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, EUSKARAZ.

Eskutitzak

Nazioarteko elkartasuna ez da delitu

Munduko herri eta kultura zapalduen arteko elkartasuna kriminalizatu nahi izan du Espainiako Estatuak Askapenaren aurka egin duen polizia operazioan, eta Biladi Hadi kultur brigadak gogor salatu nahi du operazioa, eta Gabi Basañez, Unai Vazquez, Itxaso Lekuona, Walter Wendelin, Ruben Sanchez, David Soto eta Haritz Ganboa militanteen atxiloteta. Gure elkartasun osoa dute zazpi kideek, eta lehenbail-ehen aske uzteko exijitzen dugu.

Espainiako Gobernuak adierazi du, besteak beste, Ekialde Hurbilean zituela harremanak Askapenak. Eta hala da; mugimendu inter-nazionalistari esker Palestinan izan da Biladi Hadi kultur brigada uztailan eta irailean; euskal kulturgin-tzako musikari, bertsolari, zinemagile, pailazo, idazle, kazetari, irakasle eta ikas-leak herri zapaldu horreki-ko elkartasuna erakustera joan dira. Musika, dantzak, hitzak, irriak eta koloreak eraman eta jaso dituzte, kultura partekatu dute, eta kulturaren bidez bi herrien arteko zubiak eraiki dituzte Askapenari esker. Herri bakoitzak bere esperien-tzia, borroka, jakinduria, sufrimendua eta itzaropena zabaldu eta eman dio bes-teari. Eta hori elkartasuna da, ez delitua.

Askapenak Palestinan elkartasuna garatu du, Eus-kal Herriarekiko zubiak eraiki ditu, beste hamaika lekutan brigadarik brigada eta urterik urte egin duen bezala. Kultura, jakinduria, sufrimendua eta itzaropena partekatu ditugu, eta hori ez dago deliturik. Herri ekime-na eta herrien arteko elkar-tasuna ez dira delitu, eta ezin dira kriminalizatu.

Biladi Hadi kultur briga-dak Unai Vazquez taldeki-dea eta beste atxilotuak askatzeko exijitzen dio Espainiako Gobernuari, eta euskal herritarrei, eta bere-ziki kulturgileei, sarekada honen kontrako mobiliza-zioetan parte hartzera dei-tzen die.

Joxe Mari Agirretxe Porrotx, Arantxa Urbe, Gari Berasaluzze, Fredi Paia, Ainara Gorostizu, Hodei Iruretagoiena eta Biladi Hadi kultur brigadako 30 lagun gehiago.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Urriaren 15etik aurrera ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

Oharrak

1962. urtean jaiotako enafaria

1962. urtean jaiotako lasar-tearrentzat afari bat antolat-u dugu azaroaren 13rako, Dana-Ona jatetxean. Interes-atuek 40 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 5erako, honako kontu korron-te zenbakian, 3035 0036 17 0361127028. Argibide gehia-gorako, deitu: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu). Anima zaitetz!

Oztabide elkarteko loteria

Oztabide auzo-elkartek Arranbide-Oztaraneko auzo-tarrei jakin arazten die egube-rritako loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria par-taidetzak dira hartu daitez-keenak. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta Coviran supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza-

gastuei aurre egiteko baliabi-de hau bakarrik daukala elkar-teak.

Diru-laguntzen eskaerak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizar-te Zerbitzuetako, Enpleguko eta Kooperazioko Departam-entuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die gaur irekiko dela sail honek eman ohi dituen diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea.

Horretarako eskariak Uda-letxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:30era bitartean, eskatutako agiriarekin batera, hau da, memoria, gastuen justifikazioa eta jardueren proposamena.

Hori guztia aurkezteko epea urriaren 24era egongo da irekia.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diru-zorora, urrezko katea, zila-rrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketare-

kin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko putsera eta kami-seta beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dau-den pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Marrakzi eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteko marrakzi eta margo eskola martxan da dagoeneko eta oraindik plazak daude. Eskolak asteazkenetan eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira. Interesa dutenek kulturetxeko 2. Solai-rura jo behar dute.

Oharrak jartzeko:
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



2010
nafarroa oinez munduz mundu

Nafarroa Oinezera autobusa

Urriaren 17an Atarrabin ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko autobu-sa antolatu du Ttakunek. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da lehen Taxiaren geltokia zegoen lekutik.

Txartelak Jalgin eta Ttakunen bertan daude eskuragarri 12 euroen truke.

Buruntzaldeko ibilbideen eguna

- Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta eta Usurbilgo ibilbideen 3. eguna ospatuko da urriaren 17an
- Ostadarreko Mendiko Sailak ibilbide osoa egiteko aukera proposatzen du

Buruntzaldeko ibilbideen hirugarren eguna ospatuko da igande honetan, urriaren 17an. Ekimen edo topaketa honi esker Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa ingurune naturala ezagutzeko aukera eskainiko zaigu. Askotan urruti ditugun parajeak ezagutzeko joera izaten dugu, gure inguruan eta hurbil ditugunak ahaztuz. Paraje ederrak ditugu gure inguruan eta horien ezagutza garrantzitsua eta aberasgarria delakoan Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek jarri dute berriro martxan gure eskualdeko ibilbideak ezagutzeko eguna.

Itxaso MORENO

Buruntzaldeko ibilbideak izeneko proiektuari esker edozein herritarrek ezagutu dezake gure eskualdea. Lehiatzeko ez den eta jende mota guztientzako egokia den kirola proposatzen digute Buruntzaldeko 4 Udalek. Gure inguruko parajeak eta bere landa-inguru naturala ezagutzeko aukera ederra dago igande, urriaren 17an.

Goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00ak bitartean egin ahal dira ibilbide hauek, beti ere topaketen barruan egin ezker. Edozein egunetan ere bakoitzak bere kabuz gure eskualdea ezagutzeko parada antolatuta dezake.

09:00etan da herri bakoitzaren hitzordua topaketei hasiera emateko. Gure herrian, San Pedro elizaren ondoko plazan izango da gurea. Usurbilen, Santuena auzoan, Zorrotzeko zubiaren parean. Andoain eta Urnieta, udalletek aspian.

Gure inguru naturala

Bidezidor eta bide ezberdinak (5 bide topaketa hauetan) aurkitzen ditugu gure inguruetan. Aukera ezberdinak proposatzen zaizkigu Buruntzaldeko ibilbideen hirugarren eguneko topaketa honetan.

Landako paisaiatik barrena ibilaldiez gozatzeko aukera izango dugu, baita belardiak eta basoak zeharkatzeko ere. Baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbiltzeko aukera paregabea ere eskaintzen da.

Bidez ez nahastu

Herrietan ibilbide zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude, bideetan berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta

zuinak. Señale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio kolorea aintzat hartuz ipinita daude. Señale edo kolore bat ikusita jakingo dugu zein bidetan aurkitzen garen. Lasarte-Oria urre zahararen kolorez, Urnieta berdeaz, Usurbil laranjaz eta Andoain urdinez adierazita egongo dira.

Koloreak ez nahastu

Andoain eta Lasarte-Oria lotzen dituen ibilbidean urdina eta urre zaharra izango dira nagusi; 7,9 kmko luzera du eta oinez soilik egin daiteke.

Andoain eta Urnieta ibilbidea urdina eta berdez irudikatuta ikusiko dugu. 4,8 kmko luzera du eta oinez zein bizikletaz egin daiteke.

Andoain eta Usurbil urdinez eta laranjaz irudikatuta ikusiko dugu. 14,9 kmko luzera du (luzeena), eta oinez soilik egin daiteke.

Lasarte-Oria-Urnieta ibilbidea, urre zaharra eta berdez ikusiko dugu seinalatuta. 3,9 kmko luzera du, eta oinez zein bizikletaz egin daiteke.

Azkenik, Lasarte-Oria eta Usurbil elkartzten dituen ibilbidea dugu. 4,5 kmko luzera du (Santueneanaraino) eta oinez edo bizikletaz egin daiteke.

Ibilbide guztietan kiroletako oinetakoak eramatea gomendatzen da. Oinak ondo babestu behar dira bide osoan eroso ibili ahal izateko.

Oroigarri gisa

Hirugarren topaketa hauetan parte hartzen duen orori abiatzeko unean txartel bat eman go zaio, abiatzen den lekuko zigiluarekin.

Formaz ondo aurkitzen dena eta bi ibilbide egiteko gogoz dagoena, jakin dezala kamiseta bat jasoko duela opari eguneko oroigarri gisa. Andoain-Usurbil ibilbidea egiten dutenak ere, bietako edozein norabidean eginez gero, kamiseta bat ere eskura-



Buruntzaldeko ibilbideen bigarren topaketan jende ugari parte hartu zuen.

tuko du. Ibilbide hau izango dugu salbuespen bakarra, besteak baino kilometro gehiago dituelako, beste bi ibilbideen antzera.

Buelta autobusez

Topaketaren amaieran autobus zerbitzua eskainiko da, partaideak euren herrira itzuli ahal izateko. Zerbitzu hau erabiltzeko, derrigor, hasieran jasotako txartela zigitatua aurkeztu behar da. Orduetgia ezberdina izango da; eta Usurbildik atera, Lasarte-Oria, Andoain eta Urnieta joko du. Ondoren buelta berriro.

Lasarte-Orian Dorretzeko biribilgunean izango da geltokia. Autobusak 12:15, 13:15 eta 14:15ean irtengo dira bertatik.

Usurbilen, udalletek aurrean, Nagusia 22n izango da geltokia. Orduetgia, 12:00etan, 13:00etan eta 14:00etan.

Andoainen goiko plazaren atzealdetik irtengo da autobusa. 12:30, 13:30 eta 14:30ean izango ditu irteerak.

Azkenik, Urnietan kiosko geltokian hartu ahal izango da. Autobusak, 12:40, 13:40 eta 14:40ean. Azken autobusa honek zerbitzuari amaiera emango dio.

Antolakuntza

Buruntzaldeko udalek, Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil dira berriro ere Buruntzaldeko Ibilbideen topaketako arduradunak. Eta aurten, gure herriko kiroldegia, Lasarte-Oriako hartu du ardura nagusia.

Gogoratu, herriko kontro-



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

Hilaren 8an prentsurrekoa eman zuten aurtengo edizioa aurkezteko.

len ardura herri bakoitzarena izango dela.

Ekintza hau aurrera atera ahal izateko beti ere laguntzaileen ekarpena oso garrantzitsua da. Aurten, Andatza Mendi Elkarte, Euskalduna Mendizale Elkarte, Ostadar K.F Mendiko Saila eta Super Amarari esker aurrera egingo du topaketa honen hirugarren egunak.

2007an egin zen lehenengo aldiz Buruntzaldeko ibilbideen eguna. 2008ko hutsunea eta gero, 2009an berriro martxan jarri, eta aurten urriaren 17an hirugarren edizioa izango dugu.

Mugitu gorputza

Kirola egin nahi baduzu, amateur moduan adibidez, eta gure eskualdea ezagutu nahi baduzu aukera polita eta interesgarria duzu hau.

Ostadarreko mendi sailak beraiekin batera Buruntzaldeko buelta osoa emateko aukera ere eskaini nahi die herritarrei. Horretarako, goizeko 08:00etan San Pedro elizan jarri dute hitzordua. Gure inguruak ezagutzeko aukera ederra, gida paregabeekin. Eta ez bazara ibilbide osoa egiteko gai ikusten lasai, autobus zerbitzuei esker etxera bueltatu ahalko zara.

Talde honek ere Lasarte-Oria eta Andoain arteko tartea gomendatzen du, bide erraza eta paisaia ederrez osatutakoa baita. Bide bakarra egitea baduzu buruan, hau izan daiteke gozagarriena.

Familian, lagunekin... ibilbide aproposak adin guztientzako. Egun ederra pasa eta gure bazterrak ezagutu nahi izanez gero, aukera ederra. •